

ELKARTEAREN ESTATUTUAK

LEHENDABIZIKO KAPITULUA

IZENA ETA ARAUBIDE OROKORRA

1. artikulua.-

Aldatu egin dira ASOCIACIÓN DE INVESTIGACIÓN POR LA PAZ GERNIKA GOGORATUZ. GERNIKA GOGORATUZ BAKEAREN ALDEKO IKERKETARAKO ELKARTEAREN estatutuak. Elkarteak AS/G/00741/1987 erregistro-zenbakiarekin inskribatu zen 1987ko azaroaren 6an, eta estatutu-aldaketa hori egiteko jarraitu dira, batetik, Euskadiko Elkartei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean ezarritakoa, bigarrenik, Elkarteko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan xedaturikoa, eta, hirugarrenik, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.13 artikuluetan jasotakoa.

Gernika Gogoratuz elkarteak lege-testu hauek bete beharko ditu: elkartei buruzko lege horietako maniak; honako estatutu hauek, legearekin kontraesanean ez dauden alderdi orotan; elkartearen gobernu-organismoek baliozkotasunez hartutako erabakiak, betiere legearen eta/edo estatutuen aurkakoak ez badira; eta Eusko Jaurlaritzak onartzen dituen erregelamendu-xedapenak, zeinak osagarri baino ez baitira izango.

PROPOSATURIKO HELBURUAK

2. artikulua.-

Elkarte honen helburu nagusia mundu osoan eta Euskal Autonomia Erkidegoan bake emantzipatzailea eta bidezkoa lortzen laguntzea da, eta Gernika Gogoratuz Fundazioari babesak eskaintzea, haren helburuak bete ditzan.

Horretarako, hainbat jardueraren bidez sustatzen dira: ikerketa eta ekintza parte-hartzailea, prestakuntza, kontzientziazioa, sentsibilizazioa, eragin politikoa eta lankidetzaren memoriarekin loturiko auzietan, giza eskubideak, justizia soziala, genero-berdintasuna eta diskriminaziorik ezaren printzipioa, naturaren eta gizakiaren arteko oreka, aniztasuna eta kulturartekotasuna, eta tokian tokiko eta mundu zabaleko elkartasuna.

Helburu horiek lortzeko, honako JARDUERA hauek gauzatuko dira, betiere legeak ezarritako baldintzak bete ondoren:

- Gernikaren bake-sinbologia babestea eta zaintzea.
- Bakearen eta gatazken ikasketen esparruko jakintza kritikoaren alorreko ikerketa, trebakuntza eta dibulgazioa sustatzea, unibertsitateekin, zentroekin eta sareekin lankidetzan.
- Arteak eta memoria sustatzea bake-pedagogia gisa, eta bake-kulturaren eta indarkeriarik ezaren aldeko salaketa eta eragin politikoa sustatzea.
- Hezkuntza-programak sustatzea, hala formalak nola ez-formalak, herritarrak bizikidetzaren alde kontzientziazteko eta sentsibilizatzeko.



- Aholkularitza ematea zuzenean edo zeharka elkartearen jardueraren eremuarekin zerikusia duten erakunde pribatuei eta administrazio publikoei.

- Liburutegi digitala eta onlineko edizioa sustatzea bakearen aldeko ikerketaren azterlanen esparruan.

- Nazioarteko lankidetzako eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzako proiektuen bidez, bake justua eta emantzipatzailea eraikitzeke ekimenak babestea –tokian tokikoak zein globalak–, eta, beraz, memoria, justizia soziala, kulturen arteko bizikidetzak, eskubideen ikuspegia eta begirada feminista sustatzea.

- Gernika Gogoratuz Fundazioaren zuzendaritzan eta jardueretan parte hartzea, euskal gizartearekin eta nazioartekoarekin dituen konpromisoak betetzen direla zainduz; fundazioak gizartearekin duen lotura sustatzea, fundazioaren helburuetan eta egiten dituen jardueretan interesa duten beste pertsona eta erakunde batzuen parte-hartzea erraztuz.

EGOITZA SOZIALA

3. artikulua.- Hauxe da elkarte honen egoitza nagusia: Artekalea 1, 1. solairua, Gernika-Lumo, 48300 Bizkaia.

Elkarteak beste lokal batzuk ere izan ditzake Euskal Autonomia Erkidegoan, Batzar Nagusiak hala erabakitzen badu.

LURRALDE-ESPARRUA

4. artikulua.- Elkarteak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean garatuko ditu batez ere bere eginkizunak. Hala ere, noizbehinkako jarduerak edo jardura osagarriak egin ahal izango ditu bere lurralde-eremutik kanpo.

IRAUPENA ETA TASUN DEMOKRATIKOA

5. artikulua.- Elkarteak modu iraunkorrean eratzen da, eta Ezohiko Batzar Nagusiaren erabakiz baino ez da desegin, VI. kapituluaren xedatutakoaren arabera, edo legeetan aurreikusitako edozein arrazoiengatik, bestela.

Elkartearen barne-antolaketa eta funtzionamenduak demokratikoak izan behar dute, eta erabat errespetatuko dute aniztasuna. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarritzeko eskubidearen edozein alderdi aitortzen ez dituzten itunak, estatutu-xedapenak eta akordioak.

BIGARREN KAPITULUA

GOBERNU- ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

6. artikulua.- Elkartearen gobernu eta administrazioa kide anitzeko organo hauen ardurapean egongo dira:

- Bazkideen Batzar Nagusia, organo gorena den aldetik.
- Zuzendaritza Batzordea, zuzendaritza iraunkorreko kide anitzeko organo gisa.

BATZAR NAGUSIA

7. artikulua.- Bazkide guztiek osatuko dute Batzar Nagusia, eta bazkideon borondatea adierazteko organoa da.

Batzar Nagusiaren ahalak dira:

- a) Elkartearen jarduera-plan orokorra onestea.
- b) Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertzea eta onestea.
- c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
- d) Estatutuak aldatzea.
- e) Elkartea desagitea.
- f) Presidente, idazkaria, diruzaina eta, halakorik denean, kide anitzeko gobernu-organoa osatzen duten gainerako pertsonak hautatzea eta kargugabetzea, bai eta horiek guztiak gainbegiratzea eta kontrolatzea ere.
- g) Beste elkarte batzuekiko federazio- eta konfederazio-egintzak, edo elkarte horietakoren batetik irtetea.
- h) Ondasun higiezin xedapena edo besterentzea onestea.
- i) Gobernu-organoa osatzen duten pertsonen ordainsari-akordioa, beharrezkoa denetan.
- j) Ohiko edo ezohiko kuotak finkatzea. Nolanahi ere den, Batzar Nagusiak gobernu-organismoari eskuordetu ahal izango dio ahalmen hori, berariazko erabaki baten bidez.
- k) Elkartekideak behin betiko banantzeko erabakia hartzea.
- l) Beste organo sozial bati esleitu ez zaion bestelako edozein eskumen.

8. artikulua.- Batzar Nagusiak ohiko eta ezohiko saioak egingo ditu.

9. artikulua.- Batzar Nagusia urtean behin deitu beharko da, gutxienez, 7. artikuluan a), b) eta c) letretan aurreikusitako erabakiak hartzeko.

10. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeak hala erabakitzen duenean elkartuko da Batzar Nagusia ezohiko bilkuran —dela bere ekimenez, dela elkartekideen % 25ek hala eskaturik—; bileraren arrazoiak eta amaiera adierazi egin beharko dira, eta, kasu guztietan ere, honako gai hauen berri izateko eta haien gainean erabakitzeko izango da saioa:

- a. Estatutu-aldaketak.
- b. Elkartea desagitea.

11. artikulua.- Idatziz egingo dira Batzar Nagusiaren deialdiak, eta adieraziko da non, zer egunetan eta zer ordutan egingo den bilera; orobat, gaitzerrenda ere helaraziko da, aztertu beharreko gaiak zehazki

adierazita. Batzarra egiteko deialdiaren eta lehenengo deialdirako ezarritako egunaren artean, gutxienez bost eguneko tarte izango da, eta, beharrezkoa iritziz gero, bigarren deialdian zein egunetan eta ordutan elkartuko den ere adieraziko da. Bi saioen artean, ezingo da ordu erdi baino gutxiago igaro.

Batzar Nagusiak, ohikoak zein ezohikoak, balio osoz eratuta geratuko dira lehenengo deialdian, botoa emateko eskubidea duten bazkideen herenak bertaratzen direnean, eta bigarren deialdian, berriz, edozein izanik ere botoa emateko eskubidea duten bazkideen kopurua.

12. artikulua.- Batzar Nagusiaren erabakiak bertaratutako edo ordezkaturako pertsonen gehiengo soilez hartuko dira, baiezko botoak ezezekoak baino gehiago direnean. Hala ere, bertaratutako edo ordezkaturako pertsonen gehiengo osoa (erdia + 1) beharko dute honako akordio hauek:

- a) Elkartea desegitea.
- b) Estatutuak aldatzea.
- c) Ondasunak xedatzea edo besterentzea.
- d) Ordezkaritza-organoa osatzen duten pertsonen ordainsaria.

13. artikulua.- Bazkideek beste edozein bazkideren esku ipini ahal izango dute beren ordezkaritza, batzar nagusietara joateari dagokionez. Ordezkaritza hori idatziz emango da, eta batzarraren idazkariaren esku egon beharko du bilkura egin aurretik. Elkartearen egoitza soziala hartzen duen hiritik kanpo bizi diren bazkideek postaz bidali ahal izango dute ordezkaritza egiaztatzeko agiria.

Elkartekide bakoitzak ezin izango ditu ordezkatu bost bazkide baino gehiago.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

14. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea elkartearen interesak kudeatzen eta ordezkatzeko dituen ordezkaritza-organoa da, eta Batzar Nagusiaren xedapen eta zuzentzarauen arabera jarduten du. Bazkideak bakarrik izan daitezke ordezkaritza-organoko kide.

Honela osatuko da Zuzendaritza Batzordea:

- a) presidentea,
- b) presidenteordea (halakorik balitz),
- c) idazkaria,
- d) diruzaina,
- e) Gehienez 3 batzordekide.

15. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideak ez badira joaten aipaturako bileretara lau aldiz jarraian edo zortzi aldiz txandaka, eta ez badute ez-bertaratzea justifikatzerik, utzi egingo dute kargua.

16. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea osatzen duten karguak lau urterako hautatuko dira, batzordeak baliogabetzen ez baditu, behintzat, eta berriro hautatu ahal izango dira.

17. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte pertsona fisikoek eta pertsona juridikoen ordezkariak:
- a) Adinduna izatea, eskubide zibilak bete-betean erabiltzea eta ez egotea sartuta indarreko legerian ezarritako bateraezintasun-arrazoietan.
 - b) Estatutuetan aurreikusitako moduan izendatuta egotea.
 - c) Elkarteko bazkide izatea.
18. artikulua.- Batzar Nagusiak izendatu ondoren hartuko da Zuzendaritza Batzordearen kargua, izendapena onartu eta gero.
- Batzar Nagusiak, hala badagokio, Zuzendaritza Batzordea osatzen duten pertsonen dieta eta gastuen ordainketa ezarri ahal izango du.
19. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideek honako kasu hauetan utziko dute kargua:
- a) Agintaldia amaitzean.
 - b) Dimisioa ematean.
 - c) Bazkide izateari uztean edo ezintasun-kausaren batean sartzean.
 - d) Batzar Nagusiak baliogabetzea erabakitzen duenean, estatutu hauen 16. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz.
 - e) Zentzean.
- Kargua a) letran aurreikusitako arrazoiaren ondorioz uzten denean, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute harik eta lehenengo Batzar Nagusia egin arte, eta han hautatuko dute kargu bakoitza.
- Bestalde, b), c), d) eta e) letretan jasotako kasuetan, Zuzendaritza Batzordeak berak beteko du postu hutsa, behin-behineko izendapenaren bidez. Izendapen hori Batzar Nagusian aurkeztuko da, berresteko edo baliogabetzeko, eta, azken kasu horretan, dagokion izendapena egingo da.
- Elkarteen Erregistroari jakinaraziko zaizkio organo horren osaeran egiten diren aldaketa guztiak.
20. artikulua.- Hauek dira Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak:
- a) Elkarteen ohiko kudeaketa zuzentzea, Batzar Nagusiaren jarraibideen arabera eta haren kontrolpean.
 - b) Elkartek garatu beharreko jarduerak programatzea.
 - c) Gastuen eta sarreren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria aurkeztea Batzar Nagusiari, onetsi dezan.
 - d) Batzar Nagusiaren bileren gai-zerrenda egitea, bai eta ohiko eta ezohiko batzar nagusien deialdia egitea ere.
 - e) Bazkideek egindako proposamenei edo iradokizunei erantzutea, eta, haiekin loturik, beharrezko neurriak hartzea.
 - f) Estatutu hauetan jasotako manuak interpretatzea eta haien hutsuneak betetzea, betiere elkarten arloan indarrean dagoen lege-araudiak dioenari jarraikiz.

- g) Batzar Nagusiak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak baliatzea, salbu eta haren eskumen eskusibokoak badira.

21. artikulua.- Presidenteak erabakitzen duen guztietan egingo ditu bilerak Zuzendaritza Batzordeak, dela bere ekimenez, dela edozein kidek eskatuta. Presidenteak gidatuko ditu saioak, eta, hura falta bada, presidenteordeak, halakorik denean. Presidente eta presidenteordea falta direnetan, berriz, batzordekide zaharrenak zuzenduko du saioa.

Batzordearen erabakiak baliozkoak izan daitezen, bertaratutakoen botoen gehiengoz hartu beharko dira, eta batzordea osatzen duten pertsonen erdiek bertaratu beharko dute. Berdinketa izanez gero, presidentearen botoa kalitatezkoa izango da.

Zuzendaritza Batzordearen saioak egiteko baliatu ahal izango dira telefono bidezko multikonferentzia, bideokonferentzia edo denbora errealeko komunikazioa eta, orobat, egintza-batasuna bermatzen duen antzeko beste edozer sistema; hori horrela, kide bat, batzuk edo are guztiak agertuko dira telematikoki bilerara.

Bileraren deialdian zehaztuko dira elkartzeko inguruabarrak eta erabil litezkeen bitarteko telematikoak, eta elkartearen egoitzan izango dela ulertuko da.

Elkarteko idazkariak bertaratutako kideen nortasuna egiaztatu beharko du, eta hala adierazi aktan. Ondoren, berehala bidaliko du akta hori bertaratutako guztien helbide elektronikoetara.

Idazkariak bilkuren akta idatziko du, zeina dagokion liburuan transkribatuko baita.

ZUZENDARITZA BATZORDEKO KARGUAK

PRESIDENTEA

22. artikulua.- Batzordearen legezko ordezkaria da, eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Nagusiak hartutako erabakiak betearaziko ditu, bion presidente izanik.

23. artikulua.- Presidenteak ahal hauek izango ditu:

- a) Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Nagusiak egiten dituzten bilkuretarako deialdia egitea eta bilera horiek amaitzea, bietako eztabaidak zuzentzea, eta, berdinketa gertatuz gero, kalitatezko botoa ematea.
- b) Elkartearen jarduera-plana Zuzendaritza Batzordeari proposatzea, haren zereginak bultzatuz eta zuzenduz.
- c) Balioz erabakitako ordainketak agintzea.
- d) Premiaz sor daitezkeen auziak ebaztea, eta Zuzendaritza Batzordeari horren berri ematea ostean egingo den lehendabiziko saioan.

- e) Batzar Nagusiak berariazko erabakiaren bidez ematen dizkion eskumenak baliatzea, salbu eta haren eskumen eskusibokoak badira.

PRESIDENTEORDEA (HALAKORIK DENEAN)

24. artikulua.- Presidenteari laguntzeko eta hura ordeztzeko eginkizunak hartuko ditu bere gain, presidenteak ezin badu bete kargua behin-behinean. Halaber, presidenteak berariaz eskuordetzen dizkion ahal guztiak izango ditu.

IDAZKARIA

25. artikulua.- Haren egitekoak izango dira, zehatz-mehatz, elkartean sartzeko eskabideak jasotzea eta izapidetzea, bazkideen fitxategia eta liburua eramatea, eta akta-liburua zaintzea eta idaztea.

Era berean, zainduko du betetzen direla elkarteen arloan indarrean dauden legezko xedapenak. Horretaz gainera, erakundearen dokumentazio ofiziala zainduko du, eta liburu eta artxibo sozialen edukia ziurtatuko; orobat, zuzendaritza-batzordeak izendatzeari eta egoitza soziala aldatzeari buruzko nahitaezko komunikazioak igorriko dizkio agintaritza eskudunari.

DIRUZAINA

26. artikulua.- Egindako diru-sarrerak eta ordainketak jakinaraziko ditu, eta diru-sarreren eta gastuen urteko aurrekontua formalizatuko du, bai eta aurreko urteko kontuen egoera-orria ere. Horiek Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu beharko zaizkio, azken horrek Batzar Nagusian onestera helaraz ditzan.

BATZORDEKIDIAK

27. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide gisa duten karguarekin loturiko betebeharrak izango dituzte (elkarteen zuzendaritza eta kudeaketa arrunta), bai eta batzordeak berak agintzen dizkionak ere.

BESTE KARGU BATZUK

- 27.bis artikulua.- Gernika Gogoratuz Bakearen aldeko Ikerketa Zentroa. Gernika Gogoratuz Fundazioaren zuzendaritza.

Haren egitekoa izango da, zehazki, Gernika Gogoratuz elkarteak 2012ko irailaren 28an 793. zenbakiarekin jasotako erabaki sozialen eskritura publiko bidez emandako ahalak baliatzea, honako ahal hauek balia ditzan elkarteen izenean eta hura ordezkatzuz:

1. Gernika Gogoratuz Bakearen aldeko Ikerketa Elkartea ordezkatzeko edozein erakunde publiko edo pribaturen aurrean, estatuko, autonomia-erkidegoetako, probintzietako eta udalerrietako administrazioetako bulegoen eta agintarien aurrean, nazioarteko erakundeen aurrean eta era guztietako pertsona eta enpresen aurrean. Ahalmen osoko ordezkaritza horren xedeak hainbat izan daitezke: informazioa eta dokumentazioa eskatzea, lortzea eta aurkeztea; elkarteen xedearekin zerikusia duten hitzarmenak eta kontratuak sinatzea; edozein erakunde publiko eta pribatuaren egiten

dituen laguntza-programen zernahi deialditan parte hartzea; proiektuak eta programak aurkeztea; eskatzen zaizkion idazkiak, dokumentuak, eskaerak eta gainerakoak entregatzea; eta, oro har, eskatutako finantzaketa edo laguntza lortzeko beharrezko kudeaketak, agerraldiak eta izapideak egitea

2. Era guztietako ondasunak eta higigarriak erostea, saltzea eta, bestelako titulu bidez, eskuratzea edo besterentzea, bereziki lehengaiak, salgaiak, instalazioak, tresnak eta interes sozialerako komenigarriak diren gainerako ondasunak; horretarako, dagozkion kontratuak egin beharko dira, eta, horiek jasotze aldera, kontratuak egikaritu, kobratu eta ordaindu egingo dira. Halaber, xede horrekin egitekoak izango dira aitorpenak eta peritatzeak, espedienteak eta gainerako eginbideak, bai eta likidazio- eta jasotze-eragiketak ere.

3. Posta, telegrafoa, telefonoa eta posta elektronikoa jasotzea, erantzutea eta igortzea, baita posta ziurtatua edo hartu-agiriduna denean eta eskudirua edo baloreak dituenean ere; posta edo telegrafo bidezko igorpenak ezartzea edo erretiratzea; helbide telegrafikoak, elektronikoak eta posta-kutxak eskatzea, lortzea, sustatzea, berritzea eta horiei uko egitea; elkartearen ordezkari gisa joatea deitzen diren bilera ofizial edo pribatuetara, horietako adierazpen edo proposamen egiaztatuak eginez, onetsiz edo ezetsiz.

4. Lan-kontratuak, zerbitzu-errentamendu kontratuak eta finantza-errentamenduenak (*leasinga*) formalizatzea; lehiaketetara eta enkanteetara jotzea, eta, oro har, sozietatearen xedea betetzeko beharrezko ondasunak edo eskubideak administratzeko kontratuak egitea.

5. Kanbio-letrak eta gainerako igorpen-agiriak igortzea, hartzea, endosatzea, onartzea, kobratzea, negoziatzea, ordaintzea, kontu hartzea eta abalatzea; erresaka-kontuak egitea; onarpen edo ordainketa ezagatiko protestoak eskatzea; kontuak onartzea edo aurkaratzea; Espainiako Bankuan edo beste edozein banku, aurrezki-kutxa edo kreditu-establezimendutan kontu korronteak, aurrezki-kontuak eta kreditu-kontuak irekitzea, jarraitzea, luzatzea berritzea eta ezeztatzea, kontu horietako funtsak eskura izanik eta, horiekin loturik, taloiak, txekuek, aginduak eta gainerako dokumentuak sinatuz; ordainketak eta kobrantzak egitea, edozer titulu eta zenbatekorekin, izan zentro ofizialetakoak, izan partikularretakoak; gordailuak egitea eta erretiratzea; eta jakinarazpenak eta errekerimenduak egitea eta jasotzea, egin beharreko adierazpenak eginez.

6. Eta aurretik aipatutako guztia egiteko, beharrezkoak eta komenigarriak diren agiri publiko eta pribatu guztiak egilestea eta taxutzea, denbora-, forma- edo leku-mugapenik gabe.

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK: ONARTZEKO BALDINTZAK ETA PROZEDURA, ETA MOTAK

28. artikulua.- Elkarteko kide izan daitezke hala nahi duten pertsonak, betiere baldintza hauek betetzen badituzte:

Pertsona fisikoak: adinduna edo adingabe emantzipatua izatea, ez izatea legezko inolako galarazpenik eskubidea egikaritzeko, eta ez edukitzea gaitasuna mugatuta ebazpen judizial irmo bidez.

Elkartean aurretik parte hartu dutenak izan daitezke kolaboratzaile. Zuzendaritza Batzordeak merezimenduengatik edo ekarpen bereziagatik eskakizun hori betetzen dutenak izendatu ahalko ditu bazkide kolaboratzaile. Salbuetsita egongo dira kuota ordaintzetik eta ez dute botorik izango. Ez dira Zuzendaritza Batzordeko kide izango.

Batzar nagusietara joan ahalko dira, hala ohikoetara nola ezohikoetara, bai eta foroak egiten duen edozein jardueratara ere, baldintza berberetan; hitz egiteko aukera izango dute, baina ez botorik. Kolaboratzaile izaera ezin da eskuordetu.

29. artikulua.- Elkarteko kide izan nahi dutenek idatziz eskatuko dute, bi bazkidek abalatuta eta presidenteari zuzenduta. Presidenteak Zuzendaritza Batzordeari jakinaraziko dio, eta hark erabakiko du onartu edo ez. Batzar Nagusian gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango da.

Atxikipena berresteko unean, dagokion urterako ordaindu beharreko kuotaren zenbatekoa zehaztuko da.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

30. artikulua.- Elkartekide guztiek eskubide hauek dituzte:

- 1) Elkarteei buruzko Legearen edo estatutuen aurkako erabakiak eta jarduerak aurkaratzea, berrogei egun naturaleko epean, demandatzaileak aurkaratutako erabakiaren edukia ezagutu duenetik edo ezagutzeko aukera izan duenetik zenbatzen hasita.
- 2) Elkarteen gobernu- eta ordezkaritza-organoen osaerari, kontuen egoerari eta jardueraren garapenari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.
- 3) Elkarteko gainerako kideen nortasuna ezagutzea, diru-sarreraren eta gastuen kontuen egoeraren berri izatea eta elkarteen jardueraren garapena noiznahi ezagutzea, betiere datu pertsonalak babesteko araudian aurreikusitako baldintzetan.
- 4) Batzar nagusietarako deialdia jasotzea, batzar nagusietara joatea eta batzarrotan hitz egiteko eta botoa emateko eskubideaz baliatzea. Horretarako, beste kide batzuen esku ipini ahal izango du ordezkaritza.
- 5) Estatutu hauen arabera, elkarteen zuzendaritza-organismoetan parte hartzea, eta horietarako hautesle eta hautagai izatea.
- 6) Indarrean dagoen legedian aurreikusitako bazkideen fitxategian agertzea, eta elkarteen logoa erabiltzea, halakorik baldin badu.
- 7) Estatutuen ale bat edukitzea eta zuzendaritza-organoei eskaerak eta kexak aurkezteak.
- 8) Elkarteen jardueretan parte hartzea.

- 9) Diziplina-neurriak hartu aurretik, idatziz entzuna izatea eta neurri horiek hartzeko arrazoiak berri izatea (bazkide gisa dituzten betebeharrak ez betetzean bakarrik oinarritu ahal izango dira).
- 10) Edozein unetan baja ematea, betetzeke dauden konpromisoen kalterik gabe.

31. artikulua.- Bazkideen betebeharrak dira:

- a) Elkartearen helburuak partekatzea eta horiek lortzen laguntzea.
- b) Kuotak, derramak eta estatutuen arabera bazkide bakoitzari dagozkion beste ekarpen batzuk ordaintzea.
- c) Estatutuetatik ondorioztatzen diren gainerako betebeharrak betetzea.
- d) Elkarteko gobernu-organismoek baliozkotasunez hartutako erabakiak onartzea eta betetzea.

BAZKIDE IZATEARI UZTEA

32. artikulua.- Honako kasu hauetan utziko zaio bazkide izateari:

1. Heriotzagatik edo pertsona juridikoak desagiteagatik (halakorik badago).
2. Borondatez banantzeagatik, elkarteko presidenteari jakinarazpen fede-emailea eginez, eta bertan borondatezko baja emateko asmoa adieraziz.
3. Zehapenagatiko banantzeagatik, honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean: larriki, behin eta berriz eta nahita ez betetzea Estatutu hauetatik eratorritako betebeharrak, edo Batzar Nagusiak edo Zuzendaritza Batzordeak baliozkotasunez hartutako erabakiak.

ZEHAPEN-ARAU BIDEA

33. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeak elkartekideak zehatu ahal izango ditu, baldin eta kideok behin eta berriz urratzen badituzte estatutuak, Batzar Nagusiaren erabakiak edo Zuzendaritza Batzordearenak.

Zehapenak izan daitezke eskubideak etetea (15 egunetik hilabetera bitarte), eta behin betiko banantzea, hurrengo artikuluetan aurreikusitako moduan.

Horretarako, presidentek ikerketa bat abiaraztea erabaki ahal izango du, zehatu daitezkeen jokabideak argitzeko. Idazkariak gauzatuko ditu jarduketak, instrukzio-organismo gisa, eta dagozkion neurriak hartzea proposatuko dio Zuzendaritza Batzordeari.

Zuzendaritza Batzordearen eskumena izango da zehapenak ezartzea, idazkariak parte hartu gabe (instrukzio-organismoa baita), eta, aurretik, interesdunari entzun beharko zaio. Erabaki horren aurka

errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Batzar Nagusian, behar bezala arrazoituta.

34. artikulua.- Bazkide batek elkartetik banantzeko ustezko kausaren bat baldin badu, larriki, behin eta berriz eta nahita ez betetzeagatik estatutu hauetatik edo Batzar Nagusiak edo Zuzendaritza Batzordeak baliozkotasunez hartutako erabakietatik eratorritako betebeharrak, presidenteak aurretiazko eginbide jakin batzuk egiteko agindu ahal izango dio idazkariari, informazio egokia lortzeko. Informazio hori aztertu ondoren, presidenteak bi aukera izango ditu: eginbideak artxibatzea edo elkartetik banantzeko zehapen-espedientea abiaraztea.

35. artikulua.- Banantzeko zehapen-espedientea abiaraziz gero, idazkariak idazki bat bidaliko dio interesdunari, dena delako egitateak egiaztatu ondoren. Idazki horretan, egozten zaizkion karguak adieraziko zaizkio interesdunari. Interesdunak hamabost eguneko epea izango du kargu horiei erantzuteko eta bere burua defendatzeko egokituz jotzen duena alegatzeko. Epe hori igarotakoan, kasu guztietan ere, Zuzendaritza Batzordearen lehen bilkurako gai-zerrendan sartuko da gai hori. Zuzendaritza Batzordeak egoki iritzitakoa ebatziko du, idazkariaren botorik gabe, azken horrek espedientearen instrukziogile gisa jardun duela kontuan harturik.

Interesdunari behin-behineko banantze-erabakiaren berri emango zaio, eta jakinaraziko zaio ezohiko Batzar Nagusira bideratuko dela banantze-espedientea, zeinak behin betiko banantze-erabakia hartuko baitu, hala egokituz gero. Bien bitartean, Zuzendaritza Batzordeak erabaki ahalko du erruztatutako pertsonari bazkide gisa dagozkion eskubideak etetea, eta, Zuzendaritza Batzordeko kide izanez gero, kargugabetzea dekretatu beharko du.

Gertakarion ostean egiten den lehendabiziko Ezohiko Batzar Nagusira bidaliko da banantze-espedientea, eta, hiru hilabeteko epean deialdia egin ezean, ondorio horietarako bakarrik egin beharko da, Batzordearen erabakia berresteko edo baliogabetzeko.

Idazkariak espedientearen laburpen bat idatziko du, Zuzendaritza Batzordea gai izan dadin erruztatuak aurkeztutako idazkiaren berri emateko eta gertakariak behar bezala azaltzeko Batzar Nagusiaren aurrean, azken horrek dagokion erabakia hartu dezan.

36. artikulua.- Behin betiko banantze-erabakia arrazoitua izango da beti, eta interesdunari jakinarazi beharko zaio. Hark auzitegitara jo ahal izango du, dagokion eskubidea erabiliz, uste badu legearen edo estatutuen aurkakoa dela erabakia.

37. artikulua.- Bazkide bati jakinarazten zaionean elkartetik banandu dela, izan bere borondatez, izan zehapen baten ondorioz, eskatuko zaio bete ditzala elkartearekin dituen betebeharrak, halakorik baldin badu betetzeke.

LAUGARREN KAPITULUA

SOZietate-ONDAREA ETA AURREKONTU-ARAUbIDEA

38. artikulua.- Elkartek ez ditu sozietate ondarrerik.
39. artikulua.- Hauek izango dira elkarteak sozietate-jarduerak betetzeko aurreikusitako baliabide ekonomikoak:
- a) Ondare-ekarpenak.
 - b) Adosten diren aldizkako kuotak.
 - c) Dagozkion ondasun eta eskubideen produktuak, bai eta legez jaso ditzakeen dirulaguntzak, legatuak eta dohaintzak ere.
 - d) Elkarateak lortzen dituen diru-sarrerak –Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen dituen jarduera legitimoen bidez–, betiere estatutu-helburuen barruan.

ELKARTE- ETA EKONOMIA-EKITALDIA urterokoa izango da, eta urte bakoitzeko abenduaren 31n itxiko da.

Elkarateak jarduera ekonomikoak eta zerbitzu-prestazioak gauzatzearen ondorioz lortzen dituen etekinak bere helburuak betetzeko baino ez dira erabiliko, eta ezingo dira inola ere banatu elkartekideen artean, haien ezkontideen artean edo antzeko afektibitate-harremana duten elkartekideen bizikideen artean, ezta haien senideen artean ere; orobat, ezingo zaizkie doan laga irabazi-asmoko pertsona fisiko edo juridikoei ere.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

40. artikulua.- Bazkideen Ezohiko Batzar Nagusian erabaki beharko da estatutu-aldaketa, eta horretarako berariaz deitutako saioa egin beharko da. Zuzendaritza Batzordeak batzorde txostengile bat izendatuko du, hiru bazkidek osatua, aldaketa-proiektua idatz dezan hark emandako jarraibideei jarraituz, eta batzorde txostengile horrek zehaztuko du noiz amaituko den proiektua.
41. artikulua.- Aldaketa-proiektua adierazitako epean idatzi ondoren, presidenteak Zuzendaritza Batzordearen lehendabiziko bilerako gai-zerrendan sartuko du, eta hark bi aukera izango ditu: onestea edo, hala badagokio, batzorde txostengileari itzultzea, berriz azter dezan.
- Onetsiz gero, Zuzendaritza Batzordeak hurrengo Ezohiko Batzar Nagusiaren gai-zerrendan sartzea adostuko du.
42. artikulua.- Batzarraren deialdiarekin batera estatutuen aldaketaren testua aurkeztuko da, bazkideek egoki iritzitako zuzenketak bidal diezazkioten idazkariari. Batzar Nagusiari emango zaio zuzenketa horien berri, betiere idazkariaren esku badaude bilkura egin baino zortzi egun lehenago.
- Zuzenketak banaka edo taldeka egin ahal izango dira, idatziz egingo dira eta ordezeko beste testu bat proposatuko dute. Zuzenketak bozkatu ondoren, Batzar Nagusiak estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatzen direnetik aurrera izango ditu ondorioak hirugarrenen aurrean.

SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA SOZINETATE-ONDAREA APLIKATZEA

43. artikulua.- Elkarte desegingo da:

1. Bazkideen borondatez, horretarako berariaz deitutako Ezohiko Batzar Nagusian adierazita.
2. Estatutuetan ezarritako epea edo baldintzak betetzean.
3. Beste elkarte batzuek xurgatzean edo haiekin bat egitean.
4. Legez ezarritako gutxieneko elkartekide kopurua ez izatean.
5. Epai irmoz desegitea erabakitzen denean.
6. Helburu sozialak bete ezin dituenean.

44. artikulua.- Elkarte deseginez gero, desegitea erabakitzen duen Ezohiko Batzar Nagusiak likidazio-batzorde bat izendatuko du, eta batzorde horrek hartuko ditu bere gain dauden funtsak.

Bazkideen eta hirugarrenen aurreko betebeharrak sozialak bete ondoren, irabazi-asmorik gabeko erakunde edo xede batera bideratuko da soberako ondare soziala, halakorik baldin balego.

Eta hala ziurtatzen da Gernika-Lumon, bi mila eta hogeita bateko otsailaren 11n.

IDAZKARIA

ANNA LEÓN HERRERO ANDREA

PRESIDENTEAK ONTZAT EMANA

JOKIN ALBERDI BIDAGUREN JAUNA